

53.000

baso

berrerabilgarri. Zirkuitu osoan jarri zituzten taberna eta jantokietan baso berrerabilgarriez baliatu ziren. Ingurumenaren aldeko keina eta bazterrak garbiago izateko ahalegina egin zuten horrela.

1.600

boluntario

lanean. Urte osoan zehar antolatutako diren ekitaldietan, jende ugari aritu da lanean. Atzo, egunean bertan, 1.600 boluntario aritu ziren antolatzen, aparkalekuak zainitzen edo garbitzen.

2.550

haragi

razio. Lezoko plazan bezperatik jarria zuten txekorra burruntzian erretzen. Eguerdirako, ilara luzeak egin ziren handik pintxoak dastatzeko. Zatika-zatika guztia amaitu arte jan zuten jendeak.

salatu zituen. Ahaldun nagusiaren aurrean, Aldundian ez daukela gipuzkoar guztiak ordezkatuta salatu zuen.

Euskaltzaleak protagonista

Saldisen izandako ekitaldi ofizialekin, agintarien txanda amaitu, eta Lezon bildu ziren milaka lagunek hartu zuten protagonismoa. Ibilbideko txoko guztietan, aurtengo Kilometroak jaietako abestia. Entzun gabe zuenak ere, inor baldin bazen behintzat, segituan hartuko zuen ahotan doinua, «Hona bostekoa, ona! euskara babesteko eta euskaraz jolasteko...».

Dantza, musika, magia eta pailazoan emanaldiek busti zuten atzo ibilbidea. Goizeko hamarretatik aurrera jendea uhol-

deka ari zen gerturatzen Lezo aldera. Dozenaka mila izan ziren trenez iritsi zirenak, eta auto zein autobusentzako prestatutako aparkalekuek ere gainezka egin zuten. Lehen gunean bezperatik burruntzian jarria zuten txekor errearen usaina urrutitik hartzen zen, eta bazkaltzeko plana orduantxe erabakiko zuen batek baino gehiagok.

Algeposa gunean, berriz, The Lirium temen(do)s taldearen rock kontzertuarekin eman zioten hasiera egunari. Eguerdirako falta zen arren, sukaldeak martxan zeuden, hirugihar edo solomo ogitartekoak eta sagardo botilak eskutik eskura zebiltzan dagoeneko. Darietako bigarren gune alderantz ekin zion ibilbideari Lezoko fanfarreak

hasiera ofizialaren ondoren, eta jende andana abiatu zen atzetik. Euri tanta potoloek eguna umeltzeko saiakera egin bazuten ere, euskararen jaiari enbarru handirik ez zioten egin hodeiek.

Jaizkibel zaindari zela, Pasaiako badia eta Lezorantzako paraje ederrak ikusiz ibilbide atsegina zain zuten festara inguratu ziren milaka lagunak. Gazteenek hartua zuten ingurua, Deskontrol talde arrasatearraren kontzertuaren zain; taldekide bat gaixo zen eta ez zuten jotzerik izan, ordea. Hala ere, aitzakiarik ez zen falta, eta eguerdian taula gaina hartu zuten Ze esatek taldearen doinuekin lehertu zen festa. Txan Magoak ere aho zabalik utzi zituen haurrak eta

BOLUNTARIOAK

Jaiaren antolatzaileek esker ona agertu zieten lanean aritu ziren boluntarioei. Deigarria izan zen ibilbideko eta komunitateko garbitasuna.

helduxeagoak. Zapi gorri eta berdeak aurrera eta atzera, esku jokoekin buruhauste bat baino gehiago eragin zuen magoak. Eguerditik aurrera berriz, gustu guztien neurriera prestatutako kontzertuak ziren aukeran, Gose, Betagarri, Anje Duhalde, Gozategi edo Esne Beltza, tartean.

Nabarmentzekoa izan zen, bestalde, aparkalekuetan edo gunetan antolatzaile lanetan zebiltzanen lana, baita, garbiketant zebiltzanena ere. Ibilbide bazterrak zein komunak txukun izate aldera, etengabe aritu ziren garbitze lanetan. Eguren aurpegi iluna, berriz, osasun arreta puntuetan eta Lezoko anbulatorioan izan zuten, gehiegizko alkohol kontsumoagatik dozenaka artatu zituzten-eta.



AGUSTINA PONTESTA IKASTOLAKO IRAKASLE OHIA

Agustina Pontesta (Lezo, 1950) 1969an hasi zen Lezoko ikastolan irakasle, eta iaz hartu zuen erretiroa. Maiatzean «Lezoko ikastolaren sustraiak» liburua aurkeztu zuen, lanerako grinaz jarraitzen zuen seinale. Liburuan, XIX. mendean geroztik Lezon euskarazko irakaskuntzan emandako lehen pausoak jasotzen ditu. Hasierako izpiritua gaur egun oraindik bizirik dagoela dio berak.

«Gaur egun, zoritxarrez, beharrezkoak ditugu Kilometroak eta gisako jaiak»

«Lezoko ikastolaren sustraiak» liburua plazaratu duzu. Nola otu zitzaizun liburu bat egiteko ideia?

Bailara guztian ikastola txiki ugari ditugu, eta Lezon hainbeste ume sortzen ez denez ez genuen ikastolarik. Biltzen hasi ginen ikastola sortzeko asmoz, eta orduan ohartu nintzen jendeak ez dakiela lehen hemen ikastola izan zela. Guraso haiek egin zuten lanarekin, horrek nonbait agertu behar zuen. Lekukotzak jasotzen hasi eta hala osatu nuen liburua. Herri guztiaren lana da, jende askoren laguntzarekin egin dut.

Nolakoa izan zen Lezoko ikastolaren sorrera?

Irakaskuntza euskaraz izateko grina zegoen hemen aspaldidanik. XX. mende hasieran Resurreccion Maria Azkue, beste hainbatekin batera, Bilbon ikastolak sortzen hasi zen. 1916an, berriz, Eusko Ikaskuntza sortu zuten, eta

ikastolak erakundetzen hasi ziren. Garai hartan, nire amak esaterako, katekesia emakume batekin euskaraz ikasten zuten. Inguruko euskaltzale gehienak pasa ziren Agustina Lizarazuren eskoletatik. Hemen, lehen ikastola Miren Gezalak ireki zuen, euskaraz irakasten zuen eta pertsona ikasia zen.

Baina mugimendu horrek 36ko gerrarekin geldialdia izango zuen...

Bai, gerrak hura guztia eten zuen. Hala ere, 1944an berpiztealdi bat izan zen Elbira Zipitriarekin. Gerra aurreko asmoarekin jarraitu zuen berak. Frantziar ibilia zen, eta berrikuntzak ekarri zituen. Funtsezkoa izan zen haren lana, pedagogia ikuspegitik eredu berriak aplikatu zituen. Ikasle eta irakaslearen arteko lotura estua egin zuen. Neskek eta mutilak elkarrekin jarri zituen eta heziketa laikoa ematen zuen. Erljiioarekin eztabaida handiak izan

zituen eta 60ko hamarkadarako eliza egin zen ikastolaren kargu.

60ko hamarkada amaieran iritsi zinen zu ikastolara, ezta?

1969an hasi nintzen irakasle bezala, baina, bi urte lehenagotik prestatzen aritu nintzen lan horretarako. Titulua beharrezkoa zen.

Nola gogoratzen dituzu hasiera haiek?

Oso urte aberasgarriak izan ziren. Ni bost urteko txikiek aritzen nintzen, irakurtzen eta idazten irakasten genuen. Herritarren laguntza izugarria genuen, gurasoek zuten guztia ematen ziguten. Irakasle lanaz gain, ikastolako beste hamaika lan egin behar izaten genituen. Gurasoen inplikazioa ere izugarria izaten zen. Ikastolan bilerak egiten gelditzen ginenean, argia ikusi eta afaria ekartzera etortzen ziren gurasoak. Oroitzen naiz, egun batean ume baten

aitonak azeri bat hil eta ikastolara ekarri zuela, izugarritzko lanak egin genituen harekin eta asko ikasi genuen.

Urteak joan ahala zertan edo nola aldatu da ikastola?

Nahiz eta asko aldatu den, garai hartako izpiritua mantentzen du. Ezberdina da, hala ere, gaur egun material izugarria dago. Garai hartan material guztiak guk egiten genituen. Izugarritzko lana izaten genuen, baina, lan polita izaten zen.

Buru-belarri ibili zara lanean Kilometroak jaia dela-eta. Oraindik beharrezkoak al dira horrelako jaiak?

Nire ustez, oraindik zoritxarrez beharrezko ditugu horrelakoak. Gure euskalduntasuna, euskara eta euskal kultura zalantzan ditugu. Orain gainera, liburu pedagogikoak liburu politiko bihurtu dituzte. Oraindik lan ikaragarria dugu euskal hezkuntzan J. ARRONDO